

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultur-ek 41 kultura emanaldi antolatu ditu Nafarroako 39 udalerrri eta paisaia eta natura intereseko gunetan

Aurten Kultur abuztuko programa izan beharrean uda guztira zabalduko da

Astelehena, 2016.eko ekainak 13

Kulturako Zuzendaritza Nagusiko programak, ekainaren 17tik irailaren 10era musika, dantza eta arteko 41 emanaldi prestatu ditu. Ostegun, ostiral eta larunbat guztietan egingo dira Nafarroako 39 udalerrri eta pasaia- edo ondare-mailako toki interesgarritan. Kulturako Zuzendaritza Nagusiak [programa](#) hori 300.000 euroekin finantzatzen du.

[Kultur-en aurtengo edizio](#)aren berrikuntza nagusia bere iraupena izango da; hala, abuztuko programa izateari utzi eta uda guztian zehar zabalduko da, ekainaren 17tik irailaren 19era zehazki.

Kulturako zuzendari nagusi Fernando Perez Gomez; Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendari Dori Lopez Jurio; erakusketen komisario Alex Baures eta The Good Time Rollers musika-taldeko Iñaki Rodriguez izan dira gaur Kulturako Zuzendaritza Nagusiak finantzatzen duen programa honen aurkezpenean.

Aurreko urteetan gertatu den moduan musika da programako protagonista, folk, jazz, blues, pop, rock eta abesbatzako doinuekin. Nolanahi ere, programaren barnean sartzen dira ere dantza-saioak (garaikidea, flamenkoa eta folklorikoa) eta arte garaikidekoak ere, ikuslea obran partaide izan dadin. Hala, Agoitzen, abuztuaren 4tik 31ra, bisitariak Pep Carrio marrazkilariaren obra amaituko dute, kolorea emanaz; Bertizko jaurerrian, uztailaren 20tik irailaren 4ra, Maite Ortegak eta Mikel R. Nieto-k herritarrak sormen-prozesuan inplikatu dituzte; eta Corellan, Alvaro Gil eta Natacha Sansoz uztailaren 1etik 31ra izango dira, ehungintzako arteko lanak eta performance-koak erakutsiz eta partekatuz.



Programako kartela.

Ikuskizun guztiak doan izango dira Travelling' brothers Big Band taldearena izan ezik; Europako blues munduan ikusmin handiena sortu duen taldeetako bat da, eta Tuterako Gaztambide antzokian programari amaiera emango dio irailaren 10ean, larunbata. Uztailaren 7an, osteguna, Zugarramurdin egingo den Izarrak folk musika-taldearen kontzertua entzuteko, 4 euro ordaindu beharko da kobazuloetara sartzeagatik.

Azken edizioetan gertatu den moduan, ikus-entzuleek jardunaldia toki bakoitzean egingo den turismo-jarduera osagarri batekin osatu ahalko dute, programaren karira bereziki antolatu dena. Alde horretatik, bisita gidatuak antolatu dira gazteluetan, kobazulo eta errotetan, zaldi-irteerak, ardo-dastatzeak, beste dastatze batzuk, mendi-ibiliak eta ibaien behera egindako jaitsierak.

Kultur-ekaurten ere Nafarroako paisaia- edo ondare-toki eder eta adierazgarrietan emanaldiak antolatuko ditu, eta hala jendeak ikuskizunak leku paregabean ikus-entzun ahalko ditu: Orreagako kolejiata; Otsagabiako plaza, Zugarramurdiko kobazuloak, Irantzu, Leire edo La Olivako monasterioak, Orgiko basoa, Martzilla, Zangoza, Uxue, Garesko gazteluak edo Donamariako Torre Jauregia. Nolanahi ere, emanaldi gehiago antolatu dira udalerriko beste toki batzuetan, plazetan, elizetan, kultur etxeetan edo frontoietan, adibidez.

Aurtengo edizioan, programak bere egoitzak areagotu ditu, oreka geografiko bati eusten saiatu da; horrenbestez, Nafarroako zonalde guztietan antzeko jarduera-kopurua izaten ahalegindu da. Zehazki, haiek egingo diren udalerriak dira: Altsasu, Agoitz, Arguedas, Artaxoa, Bera, Corella, Donamaria, Elizondo, Lizarra, Etxarri Aranatz, Fitero, Izaba, Xabier, Leitza, Lekunberri, Lizaso, Lodosa, Los Arcos, Martzilla, Mendigorria, La Oliva, Irantzu eta Leireko monasterioak, Otsagabia, Olazti, Erriberri, Orbaitzeta, Orreaga, Gares, Ribaforada, Erronkari, San Adrián, Zangoza, Tafalla, Tuter, Uxue, Viana eta Zugarramurdi.